



Beasaingo Udala

## ZABORRAK BILDU ETA TRATATZEKO ZERBITZUA

<b>1. -ETXEBIZITZETAKO ZABORRAK:</b>	<u>Euro</u>
Etxebizitzak	117,60
Garaje kolektiboa	
50 plaza gehienez	426,30
50 plazatik 100era	639,45
100etik gora	947,10
Garaje bakarrekoa eta lokal itxia	20,00
<b>2.- KOMERTZIOETAKO ZABORRA:</b>	
a) Sukalde zerbitzua duten tabernak (pintxo, bokadilo eta plater konbinatuak):	577,50
b) Jatetxeak:	666,75
c) Supermerkatuak:	483,00
d) Supermerkatu handiak:	1.522,50
e) Fruitategiak:	483,00
f) Hondakin organikoa sortzen duten elikadura arloko bestelako dendak:	483,00
g) Harategiak eta arraindegiak (baimendutako kudeatzaileetara hondakinak eramaten dituztenak)	309,75
h) Elkarte gastronomikoak:	577,50
i) Sukalde zerbitzua ez duten tabernak	483,00
j) Hondakin organikoak sortzen ez dituzten elikadura arloko dendak	309,75
k) Bestelako dendak, biltegiak	309,75
l) Zerbitzuak	283,50
m) Biltegi handiak eta kafetegia, taberna edo jatetxe zerbitzua duten gasolindegia	1.522,50



Beasaingo Udala

### 3.- INDUSTRIETAKO ZABORRAK

**Tailer eta industrien** kasuan, tarifek hondakinen sorrera hartuko dute kontuan, eta Sasieta Mankomunitateak erabiltzaile bakoitzaren eskura jarritako errefusaren edukiontzien kopuruaren eta edukieraren arabera kalkulatu dira

Erabiltzaile bakoitzaren eskura jarritako errefusarentzako 360 litroko edukiontzi bakoitzeko	775 €/urte
Erabiltzaile bakoitzaren eskura jarritako errefusarentzako 1.000 litroko edukiontzi bakoitzeko:	1000 €/urte
Errefusa-edukiontzirik ez duten erabiltzaileak baina Sasieta Mankomunitateak beste bilketa-zerbitzu batzuk ematen dizkienak. Gutxieneko tarifa	775 €/urte
a) Garaje kolektiboa	478,8 €/urte
d) Abeltzain esplotazioei (ikuiluak)	143,85 €/urte

#### TARIFAK APLIKATZEKO ARAUAK

Urte bakoitzeko urtarilaren 1ean sortuko da tasa eta urtean bitan kobratuko da. Ezarraldiaren lehen egunean dagoen egoera hartuko da kontutan kobraketarako. Nolanahi ere nahiz eta eraikuntza berriko etxebizitzetan nola eraispenetan, kuota hilabeteka zatikatuko da eta horretarako sortzapen data bezala lehen okupaziorako eta eraispenerako lizentzia ematearen data hartuko da.

Tasa ordaindu behar duenaren titularitate-aldaketak, ekainaren 30era arte gertatzen badira, 2. seihilekoari dagokion ordainagirian izango dituzte ondorioak. Data horretatik aurrerakoek hurrengo ekitalditik aurrera izango dituzte ondorioak.

Ordaintzeko obligazioa ezinbestekoa izango da herriko etxebizitza, denda edo industri establezimenduen jabe direnentzat, ez erabiltzeak ezingo duelarik horren aurkako eraginik izan.

Herriko etxebizitzetako jabe guztiek, Udalak zaborra biltzeko eskubideak ordainerazteko dagokion agiria ematen ez dienean, Erroldan sartuak izan daitezten Udaletxeari jakinerazteko obligazioa dute. etxebizitza berrien okupatzaileek etxea hartzen dutenetik hilabete baten barru egin behar dute eskaera hori.

Lokal batean 2 iharduera edo gehiago gauzatzen direnean, kopuru haundienekoa tarifa aplikatuko da.

Jabetza horizontalaren konfigurazioa gauzatuta ez duten etxebizitza, merkataritza-lokal edota garajeen eraikinen kasuan ere, horietako bakoitzeko tasa sortuko da.

"Merkataritzako zaborrengatiko" edo "industriako zaborrengatiko" tasaren kontzeptua zergadunak Sasieta Mankomunitatetik jasotzen duen zerbitzu motaren arabera izango da, hori egiaztatuko duen txostena izan ondoren

Beasain, 2.022eko abendua